



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 75. INFORMAZIO BULETINA

> 2013ko Otsaila



GIPUZKOA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Otsaila

## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Europako Kontseiluak otsailaren 7an eta 8an eginiko bileran, Hainbat Urterako Finantza Esparrua onartu du 2014-2020 aldirako

Europako Kontseiluak akordio politiko bat lortu du eta horren arabera, Europar Batasunaren gastu guztiaren gehieneko zifra, 2014-2020 aldiran, 959.988 milioi eurokoa izango da konpromiso-kreditutan. Europar Batasunaren errenta nazional gordinaren % 1,00 izango da, hain zuzen. Ordainketa-kredituetan 908.400 milioi euroko bolumen ekonomikoa izango du; Europar Batasunaren errenta nazional gordinaren (ENG) % 0,95, alegia. Esparru honek, aurreko aldikotik, % 3ko jaitsiera izan du.

Batasunaren “ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesiorako” konpromisoaren neurriari dagokionez, onartutakoaren arabera, 325.149 milioi eurokoa izango da gehienez. Horietatik, “Hazkunderako eta enplegurako inbertsioa” helburura bideratutako baliabideak 313.197 mila euro izango dira eta honela esleituko dira: 164.279 milioi euro gutxien garatutako eskualdeentzat, 31.677 milioi euro trantsizioan dauden eskualdeentzat; 49.492 milioi euro eskualde garatuentzat; 66.362 milioi euro Kohesio Funtzaren laguntzak jasotzen dituzten estatu-kideentzat eta 387 milioi euro ultraperiferiako eskualdeei finantzabide osagarria emateko. “Europako lurralde-elkarlanerako” 8.948 milioi euro bideratuko dira.

Era berean, eta Batzordearen ekimenez, baliabide guztien % 0,35 laguntza teknikorako erabiliko dira. Laguntza teknikoa, batez ere, erakundeak indartzen eta Funtzak eraginkortasunez kudeatzeko administrazio-gaitasuna garatzen laguntzeko erabiliko da.

Gainera, “Hazkunderako eta enplegurako inbertsioa” helburura bideratutako Egitura Funtsetatik datozen baliabideetatik 330 milioi euro hiri-garapen iraunkorraren arloko ekintza berritzaileei esleituko zaizkie, Batzordearen ekimenez.

*Informazio gehiago (bideo):*

[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_Data/docs/pressdata/es/ec/135370.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_Data/docs/pressdata/es/ec/135370.pdf)



### > **Batzordeak finantza-transakzioen gaineko zergaren modalitateak ezarri ditu**

Europako Batzordeak finantza-transakzioen gaineko zergaren (FTZ) modalitateak ezartzen dituen proposamen bat onartu du eta zerga horiek lankidetzaren indartze baten testuinguruan aplikatu beharko dira. Proposamenak Batzordeak 2011ko irailean aurkeztutako finantza-transakzioen gaineko zergaren jatorrizko proposamenaren aplikazio-eremua eta helburuak jaso ditu.

Batzordearen proposamena betez, FTZ aplikatuko den gunearekin lotura duten transakzio guztiak zergapetzeko ikuspegiari eutsi diote. Horrez gain, akzioek eta obligazioek % 0,1eko tasa izango dute eta produktu eratorriek % 0,01ekoa. Hala ere, proposamenak jatorrizko proposamenarekiko aldaketa batzuk ere badakartza. Aldaketa horien asmoa zerga hasieran aurrez ikusitakoa baino eskala geografiko txikiagori aplikatuko zaiola kontuan hartzea da.

Zerga saihestearen aurrean, berme osagarri gisa, proposamenak «jaulkipen-tokiaren printzipioa» ere jaso du. Horren arabera, jaulkitako finantza-tresnak zergapetu egingo dira negoziatzen direnean; baita negoziatzaileak FTZ aplikatzen den gunean finkatuta ez badaude ere. Gehiegikerien aurkako xedapen esplizituak ere baditu.

Jatorrizko proposamenean bezala, FTZ ez zaie herritarren eta enpresen eguneroko finantza-jarduerei aplikatuko (esaterako, maileguak, ordainketak, aseguruak, gordailuak, etab.); horren helburua ekonomia errealarri kalterik ez egitea izango da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/taxation\\_customs/resources/documents/taxation/com\\_2013\\_71\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/taxation_customs/resources/documents/taxation/com_2013_71_en.pdf)

[http://ec.europa.eu/taxation\\_customs/taxation/other\\_taxes/financial\\_sector/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/taxation_customs/taxation/other_taxes/financial_sector/index_en.htm)



### > Banatu dituzte mugaz haraindiko enpresa-ekimen onenen sariak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bihartean (Gipuzkoako eta Baiona-Euskal Herriko Merkataritza Ganberak osatutako taldea) elkartarekin, Euskal Eurohiria mugaz gaindiko Agentziarekin eta Pirinio Atlantiarreko Kontseilu Nagusiarekin batera, mugaz haraindiko enpresa-ekimen onenen lehen edizioko sariak banatu ditu.

Baionako Merkataritza Ganberaren egoitzan egindako ekitaldian banatu dituzte sariak. Sariak Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren eta Gipuzkoa-Iparraldearen bi aldetako enpresen eta profesionalen artean elkarlanean egindako enpresa-ekimenak aitortzen dituzte.

Ondorengo hauek izan dira saritutako enpresak:

- Lehen saria, Baiona-Donostia Eurohirian kokatutako enpresen arlokoa, Irungo Aerovision eta Bidarteko Aerodrones enpresentzat, kostalde-guneetan itsas zaintzarako piloturik gabeko hegazkin bat sortzeko elkarrekin egindako lanagatik.
- Mugaz haraindiko Ekimenen Sarien bigarren kategoria, eremu geografiko handiagoa duena, Gipuzkoa-Iparraldea eremuko ekimenei dagokiena. C-Evolo ekimenak irabazi du saria. Bidasoaren bi aldetako ingeniariak elkarrekin egin dute lan pertsonak zama gisa garraiatzen dituen txita edo bizikleta modelo berri bat diseinatzeko.

Era berean, sariak banatzeko ekitaldian, mugaz haraindiko lankidetzan intersclustingek duten zereginari buruzko eztabaida bat ere izan da. Rhin Garaiko eta Behereko arduradunek, Gran Lilleko konurbaziokoek eta Akitania eta Euskadikoek, alor honetan dituzten esperientziak elkarri azaldu dizkiote.

*Informazio gehiago:*

<http://www.bihartean.com/index.php>



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Otsaila

## > Zabalik da, bigarren urtez jarraian, **Non ikusten duzu Europa Euskadin? gazteentzako argazki-lehiaketaren aurtengo edizioa. Europa euskal gazteei gerturatzea da helburua**

Bigarren urtez jarraian, Eusko Jaurlaritzak abian jarri du Europa euskal gazteei inguratzea helburu duen gazteentzako argazki-lehiaketa. Argazkietan, Europak gazteen hurbileko ingurua garatzen lagundu duen moduari buruz gazteek duten ikuspegia islatzera animatu nahi dituzte.

Non ikusten duzu Europa Euskadin? izenburupean, Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak sustatutako ekimena Facebook-en duen plataformaren bidez garatzen da. Parte hartu nahi duten gazteek argazkiak jarri eta Europari buruz duten ikuspegia partekatu ahal izango dute sormena erabilita. Gainera, lehiaketako beste partaideen argazkiei iruzkinak eta balorazioa egiteko aukera ere izango dute.

Lehiaketa 14-25 urteko gazteentzako da eta izena emateko epea 2013ko apirilaren 26an amaituko da. Partaideek hainbat sari irabazteko aukera izango dute; hala nola Bruselarako bidaia eta Europako erakundeetara bisitaldia, iPhone bat edo Bilbao BBK Live, Azken Rock Festival edo Donostiako Jazzaldirako bi sarrera.

*Informazio gehiago:*

<https://www.facebook.com/feder.ejgv>

[https://twitter.com/feder\\_euskadi](https://twitter.com/feder_euskadi)

[http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-ginfocon/eu/contenidos/convocatoria/c306511/eu\\_c306511/adjuntos/2\\_concurso\\_lehiaketa.pdf](http://www.gazteaukera.euskadi.net/r58-ginfocon/eu/contenidos/convocatoria/c306511/eu_c306511/adjuntos/2_concurso_lehiaketa.pdf)





Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Otsaila

## KOHESIO-POLITIKA

### > **Hazkundera eta kohesioa lortzeko gizarte-inbertsiorantz, 2014-2020 aldirako Europako Gizarte Funtsa gauzatzea barne**

Europako Batzordeak, Hazkunderako eta Kohesiorako Gizarte Inbertsioari buruzko Komunikazioaren bidez, estatu-kideei eskatu die berri dezatela ongizate-estatu eta eman diezaiotela lehentasuna gizarte-politikerara zuzendutako gastu publikoari.

Batzordearen gizarte-inbertsiorako pakete honen helburua Estatuak gizarteratze aktiborako estrategia berriak eta hobeak aplikatzea eta gizarte-aurrekontuak eraginkortasun handiagoz erabiltzea da. Gizarte-inbertsiorako neurrien pakete berriak, batez ere, gizarte-babeserako sistemek pertsonen haien bizitzako une zailetan dituzten beharrei erantzutea bermatzeari begiratzen dio, gizarte-politika sinplifikatuak eta hobeto bideratuak aplikatzeari, hain zuzen, hartara, gizarte-babeserako sistema egokiak eta iraunkorrak eskaintzeko. Estatu-kideetan gizarte aktiborako strategiak hobetzeari ere garrantzia ematen dio.

Paketeak Europa 2020ren xedeak lortzen saiatzeko gida bat eskaintzen du eta lotura bat ezartzen du gizarte-politiken, xede horiek lortzeko Europako Sehilekoan gomendatutako aldaketan eta Batasunaren funtsen artean.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0083:FIN:ES:PDF>

### > **EGEF-ak Gipuzkoako Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren sustatapenaren alde egiten du**

"Estrategia Empresarial" aldizkariak (443 zbk. 2013ko martxoaren 1ekoa) Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurraldea ikerketako eta berrikuntzako garapenaren lehen mailan kokatzeko egin duen apostua agerian jarri du berriz ere.

Oraingo honetan, eragile publiko eta pribatuen konglomeratua den Gipuzkoako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sarea bultzatuz. Sare honek, EGEF-aren laguntza dauka Euskal Autonomia Erkidegoko PO FEDER 2007-2013ren 1. ardatzaren bitartez.

*Informazio gehiago:*

[http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2013-03-01\\_EE\\_Red%20de%20Ciencia.pdf](http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2013-03-01_EE_Red%20de%20Ciencia.pdf)



### > Herrialde-kideen arteko akordioa “gazteak bermatzeko” sistema bat sortzeko

Europar Batasuneko herrialdeek “gazteak bermatzeko” sistema bat sortzea adostu du. Sistema horri esker, 26 urtetik beherako gazte guztiak 2014tik aurrera, lan egiteko eta trebakuntza edo praktika profesionalak egiteko aukera izango dute ikasketak amaitu eta, gehienez 4 hilabetera, edo langabezian gelditu ondoren.

2014tik aurrera, estatu-kideek ekintza zehatzak garatu beharko dituzte gazte guztiak ikasketak amaitu ondoren kalitatezko lan-eskaintza bat, etengabeko trebakuntzak, praktikak edo ikaskuntza profesionala jaso ditzaten.

Europar Batasuneko Enplegu eta Gizarte Gaietako Kontseiluaren ekimena da eta 6.000 milioi euroko aurrekontua du.

*Informazio gehiago:*

[http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms\\_Data/docs/pressdata/en/lsa/135746.pdf](http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_Data/docs/pressdata/en/lsa/135746.pdf)



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > **Batzordeak Europa 2020 Estrategian aurrera egin beharra dagoela adierazi du**

Batzordeak The European Union explained bildumako beste ale bat argitaratu du eta bertan azaldu dituzte Europa hazkundera eta enplegua xede dituen 2020 estrategiarekin izandako lorpenak.

Argitalpena Europar Batasunak hainbat eremu politikotan zer egiten duen azaltzen duen bilduma bateko parte da eta Estrategiaren helburu orokorrak aurkezteaz gain, orain arteko emaitzak, emandako urratsak eta finkatutako helburuak lortzeko abian jarritako erakundeak eta tresnak ere azaltzen ditu. Planteatutako ekimen guztiak abian jartzeko eta garatzeko plangintza ere jasotzen du dokumentuak.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/europe2020/pdf/europe\\_2020\\_explained.pdf](http://ec.europa.eu/europe2020/pdf/europe_2020_explained.pdf)

### > **LeaderSHIP 2020 itsas-teknologiaren lehiakortasuna handitzeko Batzordearen estrategia berria**

Europako Batzordearen arabera, Europako ontziteriak eta itsas ekipamenduko industriak 500.000 pertsona baino gehiagori ematen die lana eta urtean, batez beste, 72 mila milioi euroko fakturazioa du. Hala ere, sektore honek lehia handia du eta beste industria asko bezala, aurrekaririk gabeko krisiaren ondorioen eraginpean dago.

Hori horrela, Europako Batzordeak LeaderSHIP2020 aurkeztu du, Europako itsas teknologiaren lehiakortasuna handitzeko Europako estrategia berria. Estrategia honek hainbat gomendio eskaintzen ditu, bai epe laburrerako, bai luzerako, hazkunde iraunkorra eta balio handiko enplegua sustatzeko eta ontzigtza eta itsas industriari etorri zaizkien aldaketen erronkei aurre egiteko.

LeaderSHIP 2020 strategiaren gomendio nagusien artean daude Batasuneko tresnen erabilera zabaltzea, gaitasun, trebetasun eta prestakuntza berriak sustatzeko, elkarketa publiko-privatuak sortzea itsas ikerketa berriak egiteko eta Europako inbertsio-bankuaren finantzaketarako aukerak baliatzea eta eskualdeko politikan espezializatzeko estrategia adimendunak erabiltzea.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/enterprise/sectors/maritime/shipbuilding/leadership2015/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/enterprise/sectors/maritime/shipbuilding/leadership2015/index_en.htm)





### > Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren arteko akordioa Batasuneko gobernantza ekonomikoa hobetzeko araudi berria egiteko

Europako Parlamentuko eta Kontseiluko ordezkariak aurre-akordioa lortu dute Europako Batzordeak aurrekontu-politikaren eta ekonomia nazionalaren zaintza indartzeko Europako politika ekonomikoa hobeto koordinatzeko bi erregelamendu berri buruz.

“Biko paketea” (two pack, ingelesez) esaten zaio eta arau argiak ezartzen ditu Europar Batasunaren finantzaketa lortu nahi duten herrialdeentzat. Estatu-kide bakoitzak bete beharreko neurriak dira; zaintza fiskalerako neurriak, hain zuzen, eta Egonkortasun eta Hazkunde Ituna indartzeko balioko dute.

Helburua aurrekontuetan murrizketek hazkunde ekonomikoa sustatzen dutela bermatzea da; horretarako, estatu-kideek hazkundera eta enplegua lortzeko egiten dituzten inbertsioak xehetasunez azaldu beharko dituzte. Hori guztia defizit publikoak BPGren % 3 gainditu gabe eta zor publikoa % 60 baino handiagoa izan gabe. Erregelamendu horien arabera, arau horiek betetzen ez dituzten Estatuek zigorra jasoko dute.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/economy\\_finance/articles/governance/2012-03-14\\_six\\_pack\\_en.htm](http://ec.europa.eu/economy_finance/articles/governance/2012-03-14_six_pack_en.htm)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Otsaila

## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > **Estatu-kideek 2012an jakinarazitako datu fiskalen kalitateari buruzko txostena**

Eurostatek, aldizka, ebaluatu egiten du estatu-kideek jakinarazitako fiskalitate-datu errealen kalitatea; baita administrazio publikoen sektoreko kontuen kalitatea ere.

Txosten hau 2012an gehiegizko defizitaren kasuan aplikagarria den prozeduraren harira egindako jakinarazpenen ondorio eta emaitza nagusietan dago oinarrituta eta azken ekitaldiari dagokio; 2012ko urriari, hain zuzen. Hala dagokionean, alderaketak ezartzen ditu 2012ko apirilean emandako informazioarekin eta 2011n emandakoarekin.

*Informazio gehiago:*

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2013:0088:FIN:ES:PDF>

### > **Data portal (datuen ataria), Europako Batzordearen datu irekien web-ataria**

Europako Batzordeak, proba bertsioan (beta bertsioa) argitaratu du datu irekien (Open data, ingelesez) atari berria.

Datuen atari berriak Europako Batzordearen datu publiko irekietara sartzeko aukera ematen du.« Baina horrez gain, Batasuneko beste erakunde, organismo, bulego eta sailei aukera ematen die datuetara sartzeko, aurrez eskaera eginda. Interesa duen edonork argitaratutako datuak deskarga ditzake berrerabiltzeko, lotzeko eta zerbitzu berritzaileak sortzeko.

Ataria datuak kontsultatzeko izateaz gain, datuei buruzko trebakuntza eta alfabetatzea emateko ere bada.

*Informazio gehiago:*

<http://open-data.europa.eu/open-data/>



### > Europako herritarrek gero eta interes handiagoa dute Europako gaietan, Eurobarometroaren arabera

Eurobarometroaren azken inkestaren emaitzek erakutsi dute Europako herritarrek gero eta interes handiagoa dutela Europako gaietan eta gehienek (% 51k, 2006an baino 7 puntu gehiago) Europar Batasunean gertatzen denari buruzko informazioa jaso nahi dutela. Jakin nahi hori, Europako Parlamentuaren arabera, eztabaida politiko nazionalak europartzearen ondorio izan daiteke.

Inkestari erantzun dietenen erdiek baino gehiagok (% 53) uste dute pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka dela Parlamentuak izan beharreko lehentasun nagusia (2011n baino 3 puntu gehiago). Politika ekonomikoen koordinazioa herenaren (% 35) ustez, Parlamentuak lehenetsi beharreko beste alderdi garrantzitsuetako bat da eta atzetik du kontsumitzaileari eta osasun publikoari eman beharreko babesa hobetzea (% 30).

Parlamentuaren zeregina zer iruditzen zaien galdetuta, inkestari erantzundakoen % 75ek esan zuten garrantzitsua zela, eta % 54k etorkizunean zeregin garrantzitsuagoa izatea gustatuko litzaiokeela.

*Informazio gehiago:*

[http://www.europarl.europa.eu/aboutparliament/en/00191b53ff/Eurobarometer.html?tab=2013\\_1](http://www.europarl.europa.eu/aboutparliament/en/00191b53ff/Eurobarometer.html?tab=2013_1)

[http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2013/parlemeter/eb78.2\\_parlemetre\\_analytical\\_synthesis\\_en.pdf](http://www.europarl.europa.eu/pdf/eurobarometre/2013/parlemeter/eb78.2_parlemetre_analytical_synthesis_en.pdf)

### > Estatuetoiko laguntzei, kontratazio publikoei eta interes ekonomiko orokorreko zerbitzuen barneko merkatuari buruzko Europako araudia aplikatzeko gida

Interes ekonomiko orokorreko zerbitzuek (SIEG) zerbitzu publikoko zenbait betebehari lotutako zerbitzu komertzialak eta ez-komertzialak biltzen dituzte, batez ere, interes orokorrari ematen diotelako zerbitzua.

Europako Batzordeak argitaratutako gida honek azalpen xehatua ematen du estatu-kideek interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak zehazteko duten zereginari, kontrataziorako baldintzei eta dagokien araudiari buruz. Gizarte-zerbitzuak eta beste SIEG zerbitzu batzuk emateko oso gida erabilgarria da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/competition/state\\_aid/overview/new\\_guide\\_eu\\_rules\\_procurement\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/competition/state_aid/overview/new_guide_eu_rules_procurement_en.pdf)



### > 2014-2020rako Hainbat Urterako Finantza Esparruarentzako sinplifikazio-adierazleen bigarren taula

2014-2020rako Hainbat Urteko Finantza Esparruaren kargura, sektoreko finantzaketa-proposamenen negoziazioen harira, Europako Batzordeak konpromisoa hartu du finantzaketa-programak eta -prozedurak sinplifikatzeko, Batasunaren finantzaketa eskuratzea errazteko eta Europako politiken gauzatzea hobetzeko, aldi berean, kontrol eta fidagarritasun maila egokiari eutsita.

Konpromiso horren harira eta sinplifikazio-gaietan eginiko aurrerapenak ikuskatzeko duen zereginari jarraituz, Batzordeak Komunikazio hau aurkeztu du 2012ko irailean aurkeztutako lehen adierazle-taularen jarraipen gisa.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/budget/library/biblio/documents/fin\\_fwk1420/COM\\_2013\\_98\\_es.pdf](http://ec.europa.eu/budget/library/biblio/documents/fin_fwk1420/COM_2013_98_es.pdf)